



AMOREBIETA - ETXANOKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AMOREBIETA - ETXANO



Tokiko Agenda  
Agenda Local <sup>21</sup>

# AMOREBIETA-ETXANOKO JASANGARRITASUNERAKO TOKIKO EKINTZA-PLANA



# AURKIBIDEA

<b>1. AURKEZPENA.....</b>	<b>1</b>
<b>2. DIAGNOSTIKOTIK EKINTZA-PLANERA .....</b>	<b>2</b>
<b>3. JASANGARRITASUN EKINTZA-PLANA.....</b>	<b>27</b>
• 3.1 Helburuak.....	27
• 3.2 Egitura eta edukiak.....	28
3.2.1 Planaren egitura .....	28
3.2.2 Ekintzen oinarrizko ezaugarriak.....	29
3.2.3 Karakterizazio ekonomikoa eta ekintzen burutzearen erantzukizuna .....	34
<b>4. JARRAIPEN-PLANA.....</b>	<b>120</b>
• 4.1 Aurkezpena .....	120
• 4.2 Jasangarritasunezko adierazleen sistema .....	122
4.2.1 Ezaugarriak.....	122
4.2.2 Aukeraketa irizpideak.....	122
4.2.3 Metodologia erreferentziak.....	122
4.2.4 Proposatutako adierazleen sistema.....	123

## **1. AURKEZPENA**

Jasangarritasun Diagnostikoaren elaboraziotik hasita, I. Dokumentua eratzen duena, Amorebieta-Etxanoko herriak dituen bai arazo eta mehatxu bai sendotasun eta aukera nagusiak identifikatu dira, Jasangarritasun Ekintza Plan edota Tokiko Agenda 21 baten elaborazioa taxutzen duten jasangarritasun-irizpideen ezarpenean oinarrituz.

Herriko Diagnostiko honetatik abiatuz, hemen aurkezten den dokumentuak analisi honi erantzuna ematen dion helburu eta ekintzen multzoa jasotzen du, guzti hauek herriaren garapen jasangarriago baterantz joatea helburu nagusizat dutelarik.

Jarduera-helburuak eta horiek lortzeko proposatutako ekintzak Amorebieta-Etxanoko Ekintza Plana deitutakoan jaso eta egituratzen dira, Amorebieta-Etxanoko Agenda 21 prozesuan oinarritzko elementua dena.

Dokumentu honen oinarritzko helburua Jasangarritasun Diagnostikoa eta jarduera-helburuen arteko lotura ezartzea da, hauen priorizazioa, Jasangarritasun Ekintza Planaren edukien deskripzio zehatza, eta ezarpen-prozesuaren jarraipena burutzeko Jasangarritasunaren Adierazle Sistemaren aurkezpena eta deskripzioa.

Zentzu honetan, kontutan hartzeko atalak dira:

### ***DIAGNOSTIKOTIK EKINTZA-PLANERA ( 2. atala)***

Herriaren egungo egoera eta joeren Diagnostikoa eta geroago Ekintza Planean islatuta agertzen diren jarduera-helburu erlazionatuen ezarpena barne hartzen ditu.

### ***JASANGARRITASUN EKINTZA-PLANA ( 3. atala)***

Amorebieta-Etxanoko Jasangarritasun Ekintza-Planaren edukien karakterizazio eta deskribapen zehatza barneratzen ditu, Ildo Estrategiko, Programa eta Ekintzen aurkezpen eta azalpenaz, hauen karakterizazio zehatzaz ere lagunduta.

### ***EKINTZA PLANAREN JARRAIPENA (4. atala)***

Amorebieta-Etxanoko Tokiko Agenda 21 prozesuaren jarraipenerako diseinatutako Jasangarritasun Adierazleen Sistemaren deskribapena eta karakterizazioa jasotzen du, udalerriko egoera eta Jasangarritasun Ekintza-Planeko ezarpenaren garapen-maila urtero ebaluatzeko moduan.

## 2. DIAGNOSTIKOTIK EKINTZA-PLANERA

Azterketa-eremu desberdinetan definitutako diagnostikoko elementuetatik hasita, hurrengo orrialdeetan Jasangarritasun Ekintza-Planaren esparruan garatzeko jarduera-programen identifikazioari ekiten zaio.

Datozen orrialdeetan diagnostikoko elementuak eta elkartutako programak taula moduan erakusten dira, aztertutako gai desberdinen arabera egituratuta:

- Ingurune sozial eta ekonomikoa
- Sistema naturalak eta Ingurune fisikoa
- Lurralde-antolamendua eta hiri-plangintza
- Mugikortasuna eta garraioak
- Ura
- Hondakinak
- Energia
- Atmosfera
- Lurzoruak
- Akustika
- Jarduera ekonomikoen eragina
- Ingurumen-arriskua
- Herritarren sentsibilizazioa eta parte-hartzea
- Udal ingurumen-kudeaketa

Gai bakoitzerako dagozkion *Diagnostikoko Elementuak* eta jarduteko proposamen-helburuak zutabe bitan aurkezten dira .

Diagnostikoko zenbait elementu desberdinen artean dagoen lotura estua dela eta, kasu batzuetan horiek multzokatzea erabaki da, eskuineko zutabearen planteatutako programak elementuen multzo oso bati lotuta egonik.

Jarduera-helburuak *Jarduera-Programak* bihurtuta aurkituko ditugu 3. kapituluan, Ildo Estrategiko edo helburu orokor handietan sartutako helburu zehatz gisa. Halaber, Programa bakoitza burutuko diren Planaren ekintza zehatzetan adarkatuko da.

**INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA**

<b>DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK</b>	<b>JARDUERA HELBURUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Azken hamar urteotan demografia hazkuntza bat gertatu da, herritarren gehikuntza progresiboa.</li> <li>• Hazkuntzaren joera positiboa da eta horrela mantentzea espero da, herria jasaten dabilen hazkuntza dela eta.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• 1991 urtetik aurrera, hazkuntza naturala nahiko irregularra izan da, nahiz eta 2000.urteik joera positiboa izan duen.</li> <li>• Hazkuntza migratzaile garrantzitsua, EAE-ko beste zenbait puntutatik etorriak gehienak.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Egitura gaztea duen herria, 15 urtetik beherakoen portzentaia Bizkaian eta EAE-ren baino haundiagoa.</li> <li>• 65 urtetik gorako herritarren portzentaia Bizkaia eta EAE-ren media baino baxuagoa da.</li> <li>• Zaharkitze tasa Lurralde Historikoko eta EAE-koarenaren azpitikoa da.</li> </ul>	<p>IS01- GAZTE POLITIKA BATEN GARAPENA, GAZTEEN INTEGRAZIOA HERRI-BIZITZAN HOBETUZ</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herritarren dentsitatea Lurralde Historikoarenaren azpitik dago, gehiena herri zentruan pilatzen delarik.</li> <li>• Herritarren %85 herrigunean pilatzen da, gainerako %15a, aldiz, auzo periferikoetan. Populazio-bolumen haundieneko auzoak Euba, Urritxe, Dueda eta Larra dira.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hasiera batean homogeneitate sozioekonomikoa ikus daiteke, auzo desberdinen artean, nahiz eta balorazio hau egiteko daturik ez izan.</li> <li>• Ez da auzorik non pobrezia eta marjinazio arazoak dauden.</li> </ul>	

**INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA**

<b>DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK</b>	<b>JARDUERA HELBURUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2001. urterarte, langabetuen tasa munizipala baxuagoa zen Bizkaia, Durangaldea eta EAE-ekin alderatuz.</li> <li>• 2005eko bigarren hiruilabeteko langabetuen tasa jeitsi egin da herrian (%5,24), aldiz Bizkaia eta EAE-n hasi egin da (%9,01 eta %8,08 batezbeste).</li> <li>• Emakume langabetuen tasa berdin mantendu da 2004 eta 2005ean, gizonezkoenaren gainetik.</li> </ul>	<p>IS02- HERRIKO ENPLEGUA SUSTATU, BEREZIKI EMAKUMEEN ARTEAN</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herri honen okupazio nagusia zerbitzuen sektorean metatzen da gehienbat (%54,78 2001ean), baita industriari ere (%36,39 2001ean). Egitura hau Durangaldeko batezbestekotik ezberdina da, non zerbitzuen eta industriaren ekarpena oso antzekoa den. Bestalde, LH-a osorik hartuta garrantzitsuagoa da zerbitzuen sektorea (%65,58) eta industriaren presentzia txikiagoa da (%23,64).</li> <li>• Azken urte hauetan, zerbitzuen sektoreak (osteleritza eta komertzioak) goraka egin du, aldiz industriak beherakada eman du.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Amorebieta-Etxanok anbulatorio bat du.</li> <li>• Zerbitzu Sozialen eskaintza ugaria da Nafarroa zentruan.</li> <li>• Programa espezifikoak Udaletxearen Ongizate Sozialaren aldetik.</li> </ul>	<p>IS03- OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUEN ESKEINTZA HANDITU</p>

**INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKOA**

<b>DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK</b>	<b>JARDUERA HELBURUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Amorebieta-Etxanon, pertsonen %65,97ak oinarrizko ikasketak edota ikasketa ertainak ditu eta %7,92ak unibertsitate edo goi mailako ikasketak (Bizkaian eta EAEn baino altuagoak).</li> <li>• Bizkaiko batesbestekoarekin alderatuz, ikasketarik gabeko herritarren ehunekoa baxuagoa da. Nahiz eta oinarrizko ikasketak erdizka utzitako pertsonen portzentaia altuagoa izan.</li> <li>• Herri honetan honako mailatarako ikastegiak daude: haur hezkuntza, lehen maila, bigarrena eta batxilergoa.</li> </ul>	<p>IS04- HELDUEN HEZKUNTZA SUSTATZEA</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskararen erabilera ugaria da eta euskaldun alfabetizatuen kopurua EAEkoaren gainera dago (%53,81 % 32,31ren gainera).</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Delinkuentzia eta drogodependentziari buruzko kontrola falta da (2006ko otsaileko foroan jasotako informazioa).</li> <li>• Eskaintza kultural onak eta 17 urtetik beherakoentzat alternatiba onak.</li> <li>• 17 urtetik gorako gazteentzat, alternatibak falta dira eta nagusientzako lokalaren tamainua handitzea ere komenigarria litzateke (2006ko otsaileko foroan jasotako informazioa).</li> </ul>	

**SISTEMA NATURALAK ETA INGURUNE FISIKOA**

DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	JARDUERA HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>Landazabal eta abelur gisa sailkatuta, herri honek balio estrategiko haundiko guneak eta trantsiziozko nekazal-paisaiko guneak erakusten du. Popolatuta dauden guneetatik urrutien dauden eremuak baso mendia moduan sailkatzen dira.</li> <li>Paisai naturala bestelako landaretza berriak ordezkaturik izaten ari da, aniztasun gutxiagokoak.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Haritz espezie ezberdinak agertu dira basoen guneetan.</li> <li>Interes bereziko zenbait espezieen presentzia.</li> </ul>	<p>SN01- HERRIKO SISTEMA NATURALEN KONTSERBAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Ingurune honen zati bat Urkiolako Parke Naturalari dagokio eta beste zatia Urdaibaiko Biosferako Erreserbari.</li> </ul>	<p>SN02/HIR06- UDAL JARDUERAK ETA BABESTUTAKO EREMU NATURALEN ORGANO KUDEATZAILEENAK KOORDINATU</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Balore naturalen kontserbazio maila eskasa</li> <li>Gune antropizatuak aurki ditzakegu, azken urte hauetan adibidez, haritzaren ordezkari beste zenbait espezie hazi da (sastrakak eta belardia), landarediaren esplotazioa dela medio.</li> <li>Degradatutako guneak azaltzen zaizkigu (bertan behera utzitako harrobiak, kontrol gabeko isurkinak, basoetako urbazterren degradazioak).</li> </ul>	<p>SN/MUG03- BIDE-AZPIEGITURAK SORTUTAKO BARRERA EFEKTUAREN MURRIZKETA</p> <p>SN/HIR04- DEGRADATUTAKO ESPAZIOEN ERRESTAURAZIOA</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Landaretza eta faunaren errehabilitaziorako planik ez da existitzen.</li> <li>Alcoa Fundazioari proposamen bat aurkeztu zaio Amorebieta-Etxanoko Biodibertsitateari buruzko Ikerketa burutzeko.</li> </ul>	<p>SN05- HERRIKO BIODIBERTSITATEAREN EZAGUPENEAN SAKONTZEA</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Aisialdi erabilerrako gune naturalen hedadura handia dago</li> </ul>	

<ul style="list-style-type: none"><li>• Kontrolik gabeko isurkinei buruz informazio urria. Bestalde, Lurzorua Kutsatu Dezaketen Aktibitateen Inbentarioan 59 industria aktibo, 13 leku inaktibo, 19 aldatutako aktibitate eta 13 zabortege agertzen dira Amorebieta-Etxanon.</li></ul>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• Herritarrek gune naturalen kopurua altua dela diote (2005eko Urriatik, 2006ko Marxora bitartean eginiko inkesta baten emaitzak)</li><li>• Ingurumenaren errekupeazioa herria hobetzeko aukera gisa hartzen da. (2006ko Otsaileko foroan jasotako informazioa)</li><li>• Ibaiaren inguruko zikinkeria herriaren ahulezitat hartzen da. (2006ko Otsaileko foroan jasotako informazioa)</li></ul>	

**LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA HIRI-PLANGINTZA**

<b>DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK</b>	<b>JARDUERA HELBURUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Durangaldeko inguruan kokatua.</li> <li>• Kokapen estrategikoa, komunikazio oso onarekin.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Durangoko Zatikako Lurralde Plana (aurrerapena)</li> <li>• Lurraldeko Arloko Planak</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Amorebieta-Etxanoko lurrazalaren %92,41 lur edifikaezina da. Hauetatik 1,335 km<sup>2</sup> uharken babeserako dira eta 2,352 km<sup>2</sup> babes berezira.</li> <li>• Herriaren hedaduraren %4,2-a, lur edifikagarria da, non dentsitate ertaineko etxebizitzak dauden gehienbat.</li> <li>• Amorebieta-Etxanoko lurzorua %3,39an, lur edifikagarriak dira.</li> <li>• Interes ekologiko eta paisajistikoko zenbait guneren existentzia</li> </ul>	<p>HIR01- UDAL KUDEAKETA HOBETZEA INGURUKO AUZOETAN</p> <p>HIR02- ERAIKUNTZ PROIEKTUETAN ETA ERABILERA KOMUNEKO GUNE PRIBATUETAN INGURUGIRO KRITERIOEN HARTZEA BULTZATU.</p> <p>HIR03- ETXEBIZITZEN POLITIKA INTEGRAL BAT BULTZATU.</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikuspuntu historiko eta arkitektonikotik begiratzuz gero, eraikuntza interesgarri batzuk aurki ditzakegu: Andra Mari eliza (babes berezia), zenbait eliza eta baserri (oinarrizko kontserbazioa) eta interes arkeologikoko guneak.</li> </ul>	<p>HIR04- ONDARE HISTORIKO-ARKITEKTONIKOAREN KONTSERBAZIOA</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Amorebieta-Etxanok ekipamenduen banaketa onarekin kontatzen du.</li> </ul>	<p>HIR05- EKIPAMENDUEN GEHITZEA</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Astepen, degradatuako egoitzalde bat dago.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2001.eko AASSak garapen egoera nahiko aurreratuan daude.</li> <li>• Arau Subsidiarioen berrikusketan erabilera forestalen ordenazio-aukerak aztertu beharko lirarteke.</li> </ul>	

**LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA HIRI-PLANGINTZA**

<b>DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK</b>	<b>JARDUERA HELBURUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• AASSek etxebizitzaren eraikuntzarekin jarraitzeko asmoa aurreikusten du erdiz irmotutako gunetan eta gunen urbanizagarrien sorrera auzo negusien artean. Industria egoitza gunetatik aldentzeko asmoa ere erakusten da.</li> <li>• Lurzoru industrialaren garapena espero da. Horrela, edifika daitezkeen lurzoruen %86-a lurzoru industrialari dagokio, Euba, Zelata, Almacenes, Tolsan eta Boroa inguruetan</li> </ul>	<p>HIR06/SN02- UDALAZ GAINDIKO PLANEAMENDU ETA KOORDINAZIO TRESNAK BILATU LURZORUEN ERABILEREN BANAKETA ZUZENA EMATEKO.</p> <p>HIR07- LUR INDUSTRIALA INGURUGIRO INTEGRAZIOKO KRITERIOEN ARABERA ORDENATU.</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aisialdirako eremu naturalen hedadura handia (14,67 m<sup>2</sup>/bizt).</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herritarrak, auzo periferikoen egoera eta udalez gaindiko ordenazioa herriarentzako mehatxu gisa ikusten du, honen egoera estrategikoa positiboki baloratzen den bitartean (2006ko Otsaileko forotik jasotako informazioa).</li> <li>• Udaletxearen aldetik erantzun bat behar da, edota akzeptabilitatea hobetzea. Beharrezkoa da udaletxeak zerbait egitea etxebizitzaren ailegaeraztasun gaiaren inguruan (2005eko Urria eta 2006ko Martxoan eginiko herri inkesta batetik ateratako datuak).</li> <li>• Amorebieta-Etxanoko herritarrak, herriko ekipamenduak ugari direlakoan daude (2005eko Urria eta 2006ko Martxoan eginiko herri inkesta batetik ateratako datuak).</li> <li>• Herritarren atsegintasun maila oso altua da etxebizitzaren kalitateari dagokionez (2005eko Urria eta 2006ko Martxoan eginiko herri inkesta batetik ateratako datuak).</li> </ul>	

**MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOAK**

<b>DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK</b>	<b>JARDUERA HELBURUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herriaren egoera estrategikoa Bizkaiako Lurralde Historikoan.</li> <li>• Komunikazio oso ona N-634 eta A-8 ren bidez.</li> <li>• Bizkaiko Foru Aldundiak Errepideen Lurraldeko Arloko Plana aurkeztu du, 1993ko Errepideen Arau Foralekin bat. N-634 errepidea eta A-8 autopistaren sarbideak hobetzeko helburuaz, errepidearen kapazitatea haundituko da.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• N-634 eta A-8 errepideetan mugimendu handia ordu nagusietan.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herritik pasatzen den N-634an autoen zirkulazio handia.</li> </ul>	MUG01- BIDEAK HIERARKIZATU AUTOAZ APARTEKO ERABILERAK ERRAZTEKO
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bilbo eta Donostia elkartzen duten A-8 autopistak eta N-634 errepide nazionalak herria zeharkatzen dute.</li> </ul>	MUG02- HERRI-GUNETIK JOAN-ETORRIAK EKIDITEKO BIDE-AZPIEGITURAK GARATU
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herri batetik besterako desplazamenduan, %65,65ak garraio partikularra erabiltzen du, jarraian autobusak (%20,56) eta trenak (%9,99). Desplazamenduen %4a motorrik gabeko garraioz izanen da.</li> <li>• Herri barneko desplazamenduen %69 a oinez egiten da, jarraian autoz (%25), autobusez (%5,66) eta trenez (%0,9).</li> </ul>	MUG03- HIRI BARNE ETA KANPOKO GARRAIO PUBLIKOEN INDARTZEA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Amorebieta-Etxanon, parke mobila (549,88 auto/1000 bizt.), Durangaldean baino txikiagoa da (553,64) baina Bizkaian (512,38) eta EAEn (535,66) baino altuagoa.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herrian, autoak aparkatzeko nahiko aparkaleku dago. Normalean, okupazioa %80a baino handiagoa izaten da.</li> <li>• Egunez, aparkalekuen %44ak erdialdeko biztanleek erabiltzen dituzte, beste auzoetakoek %24 a betetzen duten birtartean. Beste %32a beste herritakoek erabiltzen dute.</li> </ul>	MUG04- GAINAZALEKO APARKAMENTUEN MURRIZKETA

**MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOAK**

<b>DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK</b>	<b>JARDUERA HELBURUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Geralekua herri erdigunean kokatuta, ailegatzeko erraztasunarekin. Tren geltokia, zona industrialean dago kokatuta, hileritik gertu. Dena den egoitza gunea alde horretara hedatzea aurreikusten da.</li> <li>• Bilbotik-Ermuara bitarteko tren ibilbidea erabiltzen duten pertsonen kantitatea jeitsi egin da, Bilbo-Bermeo bitarteko ibilbidea errekuperatzen den bitartean.</li> <li>• Amorebieta-Etxano osoan zehar, autobusak 18 geltoki ditu, 7 linea desberdinetarako.</li> <li>• Azken urte hauetako autobusen zerbitzuen erabiltzaile kopuruak goraka egin du, Durango-Bilbo linea izan ezik 2004an beherakada nabarmena izan zuena.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Azken urte hauetan, oinezkoentzako azpiegitura hobetu da. Herrigunea oinezkoentzat egiteko lan egiten ari da.</li> </ul>	<p>MUG05- OINEZKOEN ETA BIZIKLETAZKOEN MUGIKORTASUNA BULTZATU ETA ERRAZTU</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Akzesibilitate Plan bat idatzita dago, ontzat emateko zain.</li> <li>• Herri guztian espaloiak jeitsi egin dira.</li> </ul>	<p>MUG06- MUGIKORTASUN MURRIZTUKO PERTSONEN AILEGAERRAZTASUNA HANDITZEA</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaur-egun ez dago ekipamenduak lotzen dituzten bidegorririk herrian, AASSetan honelako hiru bideren eraikitzea aurreikusiten den arren.</li> <li>• Zati batzuk eraikita daude, adibidez, Zubiondotik Garbigunerarteko zatia.</li> </ul>	

**MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOAK**

<b>DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK</b>	<b>JARDUERA HELBURUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Herritarren %84ak bere etxetik 5 minututara oinez, autobus geldialdi bat du. (datu hauek, 2005eko Urritik-2006ko Martxora bitartean eginiko inkesta batekoak dira).</li><li>• Herritarren %69ak bere etxetik 5 minututara oinez, tren geltoki bat du (datu hauek, 2005eko Urritik-2006ko Martxora bitartean eginiko inkesta batekoak dira).</li><li>• Herritarren %70ak bere etxetik 5 minutura oinez, taxi geltoki bat du (datu hauek, 2005eko Urritik-2006ko Martxora bitartean eginiko inkesta batekoak dira).</li><li>• Ailegatzeko erraztasunarekiko asetasmaila altua da herritarren artean (datu hauek, 2005eko Urritik-2006ko Martxora bitartean eginiko inkesta batekoak dira).</li></ul>	

<b>URA</b>	
<b>DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK</b>	<b>JARDUERA HELBURUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Azaleko ur-bilketa Orobios ibaia eta beste erreketan Andikolabe, Canteras edo Urgozo, besteak beste.</li> <li>• Potabilizazioa zuzena EUTEn (Edateko Uren Tratamendurako Estazioa) (%96) edo klorazio-biltegietan.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Edateko uraren kudeaketa Udaletxeak burutzen du. Ez dago hornidurako ur-emariaren kontrol zehatzik.</li> <li>• Ez da ezagutzen Amorebieta-Etxanoko kontrolik gabeko isurkinen ehunekoa.</li> <li>• Amorebieta-Etxanoko Hornidurarako Plan Zuzentzailea prestatzen ari da.</li> </ul>	<p>URA01- HORNIKETA-SAREAREN AZPIEGITURA ETA KUDEAKETA HOBETZEA</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2004an kontsumo totala 1.194.000 m<sup>3</sup>-takoa izan zen.</li> <li>• Etxeko ur kontsumoaren indizea 98,76 l/perts/egun.</li> <li>• Ur eskaera handiena etxekoa da (%60,8), jarraian industriarena (%23,35) eta azkenik komertziala (%15,85). Udal eta abeltzaintzarako eskariari buruzko daturik ez dago.</li> </ul>	<p>URA02- URAREN KONTSUMOA MURRIZTU</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Estolda-sarea egoera onean dago, Astepeko HUAn (Hondakin Uren Araztegia) depurazioa duten kolektoreak.</li> <li>• 2005ean, herriko populazioaren %10a ez zegoen estolda-sareari konektatuta, baina mindazuloak zituzten.</li> <li>• Estolda-sareari konektatuta ez dauden industrien portzentaia handiagoa da, zenbait industrientzako kolektore berri bat 2006an zehar bukatzea aurreikusten den arren.</li> </ul>	<p>URA03- ESTOLDERIA-SAREAREN AZPIEGITURA ETA KUDEAKETA HOBETZEA</p>

<b>URA</b>	
<b>DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK</b>	<b>JARDUERA HELBURUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Astepeko HUAN tratamendua (%90).</li> <li>• C motako industriek, badituzte euren hondakin-uren pretratamendurako instalazioak.</li> <li>• 2006an, industrialdeetarako kolektore berriak bukatzea aurreikusten da.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Astepeko HUA: Tratamendu fisiko-kimiko eta biologikoa. Ibaira isuria.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Astepeko laginketa-estazioak, ibaiaren biologi-egoera txarra eta kalitate fisiko-kimiko kaskarra adierazten du, Amorebieta-Etxanotik pasatzen den bitartean.</li> <li>• Era berean, urbazterreko basoa degradatuta dago herrian.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Amorebieta-Etxanoko herriaren gehiengoa, zaurkortasun baxu edo oso baxuko lurzoruen gainean dago, Mugarra-ko Haitza eta Amarotz-eko karst guneak izan ezik. Bertako zaurkortasuna oso altua da.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ibaiaren inguruko zikinkeria, gaur egun herriak duen ahultasun gisa ikusten da, nahiz eta herritarrak honen garbiketa burutzeko benetazko aukeraz kontziente izan (informazio hau, 2006ko Otsaileko foroan jasotakoa da).</li> <li>• Herritarren %53,17ak ur kontsumoan aurrezteko ekintzak burutzen dituela dio (datu hauek, 2005eko Urritik-2006ko Martxora bitartean eginiko inkesta batekoak dira).</li> <li>• Ibaien gainezkaldi eta estolda-sistemaren funtzionamendu txarren ondorioz, uholde/istiltze arazoak sortzen dira (2006ko Otsaileko forotik jasotako informazioa).</li> </ul>	

**HONDAKINAK**

<b>DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK</b>	<b>JARDUERA HELBURUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Hiri hondakinen produkzio indizea: 0,95 kg./biztanle/egun.</li> <li>2003. urtean hiri hondakin gehiago sortzen da. Harez geroztik, gutxitzen joan da pixkanaka. Kontuan hartzekoa da baita ere, gaikako bilketa ugartu egin dela azken urteotan.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>2005ean, 751.696,47 euro kostatu zuen prozesu guztiak: CESPAn enpresak hondakinak jaso eta garraiatu zituen eta tratamendua GARBIKER enpresak eraman zuen.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Herritarren partehartzea nahiko ona da berzirkulaketan, nahiz eta olioaren kasuan oraindik bilketa oso baxua izan (poliki hobetuz doan arren)</li> <li>Hondakin desberdinen gaikako bilketaren gorakada bat nabari da.</li> </ul>	<p>HON01- HERRITARREN SENTSIBILIZAZIO ETA PARTEHARTZEA GEHITU ETXEKO HONDAKINEN MURRIZKETA ETA BIRZIKLAPENEAN, GAIKAKO BILKETA HOBETUZ</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Kontrolik gabeko zenbait isurkin ezik, abeltzantzatik datozen hondakin organiko gehienak, ongarri moduan berrerabiltzen dira.</li> <li>Abel ustiapenen jarduera lizentzietan, zulo itxi edo iragazkaitzen instalazioa eta lursailean lagatzea eskatzen da.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Herriko enpresek Hondakin Arriskutsuen 85.226,051 T/urtean deklaratu zituzten 2003an. Enpresa hauek Baimendutako Gestore bidez eramaten dituzte HAK.</li> <li>Ez da lortu Industri Hondakin Inerteen daturik.</li> </ul>	<p>HON02- SORTUTAKO INDUSTRIA HONDAKINEN KONTROLA HANDITU ETA HAUEN MINIMIZAZIOA BULTZATU</p>

**HONDAKINAK**

<b>DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK</b>	<b>JARDUERA HELBURUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>● Hiri-hondakin solidoen bilketa CESPAn enpresak darama. Bananduta ez dauden HHSak Zabalgarbin erre edota Igorreko zabortegira (&lt; %10) eramaten dira.</li> <li>● Garbigune bat dago herrian bertan, Ibarrauko auzoan.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>● Hondakinei buruzko zabaltze-kanpaina ugari daude, udaletxeak antolatuta.</li> <li>● Papereko gaikako bilketa eraikin munizipal guztietan.</li> <li>● Tonerren gaikako bilketa eraikin munizipal askotan.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>● Herritarren %87ak dio, bere etxetik 5 minutura oinez, hondakinen gaikako bilketarako ontzi ezberdinak eskuragarri dituela, beraz, ez da konponbidea jarri behar zaion arazotako bat (datu hauek 2005eko urritik 2006ko martxora bitartean egindako inkesta batetik aterak daude).</li> <li>● 2006ko otsaileko foroan herritarrek gaikako bilketa zerbitzuaren funtzionamendu txarra antzematen zuten.</li> </ul>	

<b>ENERGIA</b>	
<b>DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK</b>	<b>JARDUERA HELBURUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Amorebieta-Etxanon estimaturiko kontsumoa 2,77 tep/bizt/urtekoa da, Bizkaiko indizearen gainera (2,18 tep/bizt/urte) eta EAE-ko indizearen gainera (2,64 tep/bizt/urte) dago.</li> </ul>	ENE01- ETXEETAN ETA KOMERTZIOETAN, ENERGIA KONTSUMOA MURRIZTU
<ul style="list-style-type: none"> <li>Kontsumo energetikoaren hazkuntza.</li> <li>Gehien erabiltzen den energia-mota elektrikoa da (%42,9), jarraian petroleotik eratorritako erregai likidoak (%29,7) eta gas naturala (%20).</li> <li>Kanpo energi-iturrienganako dependentzia.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Energia berriztagarrien generazio-dispositibo partikularren existentziari buruzko informazio zehatzik ez dago.</li> <li>EEE-ko plaka fotoboltaikoak badaude Zelaieta zentroan eta udal institutoan.</li> </ul>	ENE02- ENERGIA BERRIZTAGARRIAK SUSTATU UDAL ADMINISTRAZIOAN
<ul style="list-style-type: none"> <li>Herri honetako egitura energetikoak industria sektorea aurkezten du kontsumitzaile nagusitzat (%60 energia elektrikoa), garraio sektoreak jarraitzen dio (%100 erregai likidoak) eta tertziarioaz jarraiturik.</li> <li>Energia Elektriko kontsumo handiena industria sektorean eta tertziarioan.</li> <li>Sektore industrialean, gas naturalaren kontsumo oso garrantzitsua.</li> <li>Egoitzako elektrizitate-kontsumoak biztanleko, hazkundera adierazten du. 2004.ean, Amorebieta-Etxanon, indizea 1123 kWo/bizt/urte zen eta balore hauek Bizkaiko LH-koaren azpitik (1279 kWo/bizt/urte) eta EAE-koaren azpitik daude (1275 kWo/bizt/urte).</li> </ul>	

<b>ENERGIA</b>	
<b>DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK</b>	<b>JARDUERA HELBURUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez dugu informaziorik udal zerbitzuen energia kontsumoari buruz.</li> <li>• Ez da planik egin energia aurresteke.</li> <li>• Udaletxea lanean ari da EEE-rekin (Euskal Energia Erakundea) udal administrazioetan efizientzia energetikoa hobetzeko ekintzak ezartzeko asmoz.</li> </ul>	<p><b>ENE03- UDAL KONTSUMOAREN KONTROLA HOBETU</b></p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez dugu informaziorik udal zerbitzuen energia kontsumoari buruz.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Amorebietako herritarrei, ingurugiroari buruz gehien axola zaiena energia berriztagarrien bultzakada da. (Datu hauek 2005eko Urritik-2006ko Martxora bitartean egindako inkesta batetik aterak daude).</li> <li>• Herritarren %55,67-k Energia Kontsumoa kontrolatu egiten du. (Datu hauek 2005eko Urritik-2006ko Martxora bitartean egindako inkesta batetik aterak daude).</li> <li>• Herritarrek mehatxua ikusten dute petrolioaren deribatuen erabilerearen. Aldiz, energia berriztagarrien erabilera eta udal energia-efizientiaren hobekuntza herriarentzako aukera gisa ikusten dute. (2006ko Otsaileko foroan jasotako informazioa)</li> <li>• Energiako gaiari buruz, herritarrak informazio faltan daude. (2006ko Otsaileko foroan jasotako informazioa)</li> </ul>	<p><b>ENE04- HERRITARREN SENTSIBILIZAZIOA ETA PARTEHARTZEA ARTEAN ENERGIA ARLOETAN BULTZATU.</b></p>

**ATMOSFERA**

<b>DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK</b>	<b>JARDUERA HELBURUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Boroako Ziklo Konbinatuko Zentralaren ezarpenarekin batera airearen kalitatearen zaintza-sare bat ezarri da.</li> <li>Kontrol sarea, hiru estaziok osatzen dute, Larrabetzun kokaturiko beste batez eta Boroako Zentralak berak instalaturik duen estazio meteorologikoaz osotzen dena.</li> </ul>	<p>ATM01- HERRIKO ATMOSFERAREN KALITATEARI BURUZKO DATUEN BIZTANLEENGANAKO DIFUSIOA HOBETU</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>PM<sub>10</sub>: Polikiroldegiko estazioan urteko batez-bestekoek (2004an 30,3 eta 2005ean 30,0) ezarritako limiteak ez zituzten gainditu (41,6 eta 40 urrenez urren), nahiz eta eguneko limiteak (35) 23 eta 35 alditan gainditu; Zelaletako Estazioan urteko batezbestekoak (2004an 46,9 eta 2005ean 42,3) ezarritako limiteetatik pasa ziren, gainera eguneko limitea ere gainditu zuen 96 eta 105 alditan 2004 eta 2005 urteetan.</li> <li>Ez ziren gainditu beste poluitzaileentzako ezarrita zeuden limiteak (2004 eta 2005.urtean).</li> </ul>	<p>ATM02- INDUSTRIA ETA GARRAIOPEN EMISIOEN MURRIZKETA BULTZATU</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Ez da datu konkreturik ezagutzen.</li> <li>PM<sub>10</sub> kantitateari eragin handiena industriaren sektoreak eragiten dio.</li> <li>Ibilgailuen trafikoak NOx emisioan eragin handiena du.</li> </ul>	<p>ATM03- SEKTOREKAKO EMISIOEN KONTROLA HANDITU</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Atmosfera kutsatu dezaketen aktibitateak garatzen dituzten enpresek, Ingurugiro Sailburuordearen aurrean legalizaturiko fokoak dituztenak, legedia betetzen dute.</li> <li>Azken urte hauetan, airearen kalitateari buruz udaltzaingoak jasotako denuntzia kantitatea asko hazi da.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Boroako Ziklo Konbinatuko Zentralaren lehenengoz martxan jarri zenean, ke-laino bat herriko egoitzaldera iritsi zen.</li> </ul>	

---

<ul style="list-style-type: none"><li>• Haran baten barrenean kokaturik dagoenez, haizeek eragin handia dute herrian somatutako atmosfera-kutsaduraren gain. Horrela, PM<sub>10</sub> –ko kontzentrazio handienak haizearen norabide hauetan izaten da: HE eta IIM.</li></ul>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• Sakabanaketarako egoera klimatiko onak.</li></ul>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• Herriari gehien axola zaion ingurumen aspektua kontaminazio atmosferikoa da (datu hauek 2005eko Urritik-2006ko Martxora bitartean egindako inkesta batetik aterak daude).</li></ul>	

**LURZORUA**

<b>DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK</b>	<b>JARDUERA HELBURUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• “Lurzoru kalitatearen” irizpidea ez da Arau Subsidiarioetan kontutan hartzen.</li> </ul>	LUR01/HIR- JASANGARRITASUN KRITERIOAK BARNERATU AASS-EN BERRIKUSPENEAN
<ul style="list-style-type: none"> <li>• “Amorebieta-Etxanon lurzoru kutsatu dezaketen aktibitateen inbentarioa”-ren emaitzek adierazten dutenez, 1998an honelako 104 enplazamendu zeuden: 59 industria aktibo, 13 enplazamendu inaktibo, 19 aldatutako aktibitate eta 13 zabortege.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Badira 3 zabortege errekuPERTUAK edota errekuPERTAZEKO fasean daudenak.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez dago errekuPERTAZIO fasean edota erabat errekuPERTATUTAKO aurririk herrian.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez dago lurzoruen errekuPERTAZIORAKO ekintzarik ez eta planik ere. Lursailean jarduera jakin baten garapena baimentzeko ekintzak soilik burutzen dira.</li> </ul>	LUR02/SN- HERRIKO LURZORUEN KALITATEAREN KONTROLA HOBETU

**AKUSTIKA**

<b>DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK</b>	<b>JARDUERA HELBURUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Ez dago zarata-maparik, Udalerriko Soinu-Eraginaren Ebaluazio Plana burutzen ari den arren. Honen bidez gai honen inguruan legez kanpo dauden guneak identifikatuko dira.</li> </ul>	<p>AKU01- ZARATA ITURRIEN KONTROLA ETA JARRAIPENA GEHITZEA.</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Inguru-zarata garrantzitsua ibilgailuen trafikoak eraginda (&gt;70dBA) , gehienbat A-8, BI-635 eta N-634 errepideetan.</li> <li>Trenbide sareak sortzen duen zarata (60-65 dBA) onargarria da</li> <li>Gune industrialetan soinu-eragina oso altua da (&gt;70dBA)</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Herriko errepide nagusietan (BI-635, N-634 eta A-8) ibilgailuen joan-etorriak.</li> <li>Euskotreneko lineatan zeharreko joan-etorriak, gehienbat egunezko zerbitzuaz.</li> <li>Etxebizitza batzuk industri guneetatik oso gertu daude. Industriak sortutako inpaktua oso altua da (&gt;70 dBA).</li> <li>Leku publiko batzuk etxebizitzetatik oso gertu daude</li> </ul>	<p>AKU02/URB- ZARATA SORTZEN DUTEN AKTIBITATE EKONOMIKOEN ETA EGOITZA GUNEEN NAHASKETA SAHIESTEA</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Industrialdeen presentzia herrigunean, etxebizitzaren guneetatik gertu.</li> <li>N-634 eta BI-635 errepideek herrigunea zeharkatzen dute.</li> </ul>	<p>AKU03- HERRIKO KALITATE AKUSTIKOAREN HOBEKUNTZA</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Azken urte hauetan, zarata informeak, ziurtapenak eta salaketak gehitu dira.</li> </ul>	

**JARDUERA EKONOMIKOAK ETA ARRISKUA**

<b>DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK</b>	<b>JARDUERA HELBURUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Atmosfera kutsatu dezaketen aktibitateak garatzen dituzten enpresek, Ingurugiro Sailburuordearen aurrean legalizaturiko fokoak dituztenak, legedia betetzen dute.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Aktibitate industrialak eragin handia du uraren kalitatean, zenbait industriagune ez baitaude saneamendu-sareari konektatuta, edota ur zikinak tratatu gabe isurtzen direlako. Edonola, 2006 urtean zehar, kolektorerako lotura bukatzea espero da.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Sailkatutako jarduerak, Ingurumenaren Babesarako 3/98 Lege Orokorraren arabera tramitatzen dira eta sailkatu gabekoak 165/1999 Dekretuaren arabera.</li> </ul>	<p>JAR01- JARDUEREN KUDEAKETA UDALAREN BARNEAN OPTIMIZATU ETA SISTEMATIZATU</p> <p>JAR02- PRODUKZIO GARBIA ETA INGURUMENAREN KUDEAKETA SISTEMEN EZARPENA INDUSTRIETAN SUSTATU</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Herriko gasolindegietatik eratorritako arriskua, hala nola Boroako Zentralaren infrastrukturak eta beste gaseoduktu eta tentsio altuko lineetatik eratorritakoak.</li> </ul>	<p>ARR01- SUSTANTZIA ARRISKUTSUAK ETA ISTRIPU LARRIETARAKO ARRISKUA DUTEN ENPRESEN ETA BESTE AZPIEGITUREN KONTROLA HOBETZEA</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Larrialdietarako Udal Plana badago.</li> <li>Larrialdietarako barne-plangintza duten enpresa kopurua ez da ezagutzen.</li> </ul>	<p>ARR02- UDALERRIKO LARRIALDI PLANAREN EGUNERATZEA</p>

**HERRITARREN SENTSIBILIZAZIOA ETA PARTEHARTZEA**

<b>DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK</b>	<b>JARDUERA HELBURUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herritarren Partehartze Foroa badago</li> <li>• Tokiko Agenda 21-a eratzeko orduan herritarrei pertzepzio-inkesta bat egin zaie, non diagnostikoan landutako gaiet buruz herritarrek duten iritzia jaso den. Horrela, herriaren ikuspuntu erreal eta orokorrago bat izatea lortzen da.</li> <li>• Udaletxeak, sentsibilizazio kanpainak bultzatzen ditu Aste Berdearen barne. Hauetaz gain, Zuhaitzaren eguna, Mugikortasunaren Astea ere ospatzen dira.</li> </ul>	<p>PART01- HERRIKO BIZTANLERIAREN PARTEHARTZEA HANDITU</p> <p>PART02- JASANGARRITASUNEKO GAIEN INGURUAN HERRITARRAK SENTSIBILIZATZEA ETA INFORMATZEA</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Elkarre-ehun garrantzitsua, elkarre ugari daude gai desberdinen inguruan: kultura, natura, emakumeak, kirola, etab.</li> </ul>	<p>PART03- ELKARTEEN PAPERAREN AREAGOTZEA HERRIKO JASANGARRITASUNAREKIN ERLAZIONATUTAKO EKIMENETAN</p>

**UDAL INGURUMEN ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA**

DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	JARDUERA HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udal arlo desberdinen arteko koordinazio ona ingurumenaren gain eragina duten ekimenetan</li> </ul>	<p>ANT01- UDAL BARNEKO KOORDINAZIO MEKANISMOEN INDARTZEA.</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaletxeak ez du bere organigraman Ingurugiro soileko departamenturik</li> <li>• Jasangarritasun Batzorde bat sortu da udaletxean, sail desberdinetako ordezkariak osatuta, Tokiko Agenda 21-eko ekimenak koordinatzen dituena.</li> <li>• Tokiko Agenda 21eko gestore bat kontratatu da diseinu-faserako.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalez gairik administrazioen eragin garrantzitsua jardura jakin batzuetan.</li> <li>• Orokorrean, Amorebieta-Etxanon ingurumen-kompetentzia duten administrazio eta erakundeen arteko koordinazio ona.</li> </ul>	<p>ANT02- HERRIARI ERAGITEN DIOTEN JARDUERETARAKO UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEEKIKO KOORDINAZIOA GEHITZEA</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalak produktuak erostean eta zerbitzuak kontratatzean, ingurugiro irizpideak kontutan hartzen ditu.</li> <li>• Udala, EEE-rekin lanean ari da Energia Gestio Plan bat egiteko.</li> <li>• Zenbait enpresa dago, herriko ingurumen kudeaketarekin erlazionatuta.</li> <li>• Udalak, zenbait "Ingurumenerako Praktika Egokiak" burutzen ditu papera eta tonerren berzikelaketaren inguruan.</li> </ul>	<p>ANT03- JASANGARRITASUN IRIZPIDEEN GEHITZEA, ZERBITZUEN EROSKETAN ETA KONTRATAZIOAN</p> <p>ANT04- UDALEAN INGURUMENERAKO PRAKTIKA ONAK ERREGULARIZATU ETA EMENDATU</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zenbait tresna normatibo ditu Udalak herriaren ingurumen babeserako: animalien babes eta edukiera, instalazio radioelektriko, hiri-garbiketa eta garbiketa publiko, trafiko, etab.-erako ordenantzak</li> </ul>	<p>ANT05- UDAL ORDENANTZEN BETETZEA BERMATU</p>

### **3. JASANGARRITASUN EKINTZA PLANA**

#### **3.1 Helburuak**

Jasangarritasun Ekintza Planeko helburuak Jasangarritasuneranzko Europear Hirien Gutunean (*Aalborg-eko Gutuna*) ezarritako printzipioetan oinarrituz definitzen dira, laburki honela adierazten direnak:

- Baliabide materialen, hidrikoen eta energetiko berriztagarrien kontsumo-erritmo baxuagoa natur-guneek hauek berriztatzeko duten gaitasuna baino.
- Berriztagarriak ez diren baliabideen kontsumo-erritmo baxuagoa baliabide berriztagarriengatik ordezkatzeko erritmoa baino.
- Poluitzaileen isurpen-erritmo baxuagoa urak, aireak eta lurrak hauek xurgatu eta prozesatzeko duten gaitasuna baino.
- Ingurumen kalitatea, osasun publikoa eta aniztasun biologikoa mantentzea bizi, gizakien ongizatea, landaredia eta fauna babesteko behar adineko mailan.
- Justizia soziala eta biztanleriaren oinarritzko beharrak betetzea.
- Herritarrek eta tokiko sektoreek tokiko garapen jasangarrian parte-hartzea.
- Tokiko aurrerapen ekonomikoa.


Jasangarritasunerako irizpide nagusi hauek Udal Jasangarritasun-Diagnostikoan bildutako aspektuekin batera kontuan izateak herriarentzako jasangarritasun-helburu zehatz batzuk definitzea dakar. Helburu hauetatik eta beren hierarkizaziotik aurrera, Ildo Estrategiko moduan zehaztutako Planaren helburu estrategiko batzuk definitzen dira, Ekintza-Planaren ardatz egituratzaileak osatzen dituztenak.

## 3.2 Egitura eta Edukiak

### 3.2.1 Planaren Egitura

Jasangarritasun Ekintza Plana burutu nahi diren helburu estrategikoak osatzen dituzten **Ildo estrategikoen** definizioan oinarrituz egituratzen da.

Ildo estrategiko bakoitzak helburu espezifikoak ditu, **Jarduera-programa** gisa adierazten direnak. Programa horiek **ekintza-multzo** batean gauzatzen dira, dagozkien helburu orokor eta espezifikoaren arabera definitzen direnak (ildoa eta programa), bai eta horien deskripzioa, inplikaturiko entitateak, kostu ekonomikoa eta langileriarena, finantziario-iturriak, eta ezarritako lehentasun mailaren arabera ere.



3.1.Irudia. Jasangarritasun Ekintza-Planaren egitura

### 3.2.2 Ekintzen oinarrizko ezaugarriak

Ekintza konkretuek Ekintza-Plana egituratu eta definitzen duen oinarrizko unitatea osatzen dute. Hauetako ekintza bakoitzak hurrengo orrialdetan erakusten den moduko karakterizazioa du.

Jasangarritasun Ekintza Planaren diseinurako kontuan hartutako ekintza kontzeptua zentzu zabalean ulertzen da, izaera oso desberdineko ekintzak barneratuz jarraian erakusten den moduan sailkatu litezkenak:

- **Kudeaketa**

Jasangarritasuna lortzen laguntzen duten hainbat ekintza, udal-kudeaketarekin lotuta daudenak.

*Adibideak: Azpiegitura jakin batek ingurumenean duen eraginaren segimendua egitea, ziklomotorren maila akustikoa kontrolatzea, udalez gaindiko administrazio baten esku-hartzea eskatzea.*

- **Hezkuntza eta parte hartzea**

Jasangarritasunari buruzko hezkuntzarekin, eta herritarren eta komunitate horretako hainbat eragileren parte-hartzea sustatzearekin lotutako jarduerak.

*Adibideak: Eskoletako hezkuntza kanpainak, Parte hartzeko organo egonkor bat sortzea Tokiko Agenda 21en segimendua egiteko.*

- **Araudia**

Ingurunearekiko inpaktua mugatzen duen, ingurumen-kudeaketa hobetzen duen edota jasangarritasunerantz zuzenduta dauden eta ingurumen- kostu eta onuren barneratzea errazten duten prozesu eta jarrerak sustatzen dituen araudiaren sarrera edo aldaketa.

*Adibideak: Eguzki-energia sustatzen duten ordenantzak egitea, Ordenantzak udalez gaindiko ingurumen-arau berrienetara egokitzea.*

- **Fiskalitatea**

Jasangarritasunerantz zuzenduta dauden eta ingurumen- kostu eta onuren barneratzea errazten duten prozesu eta jarrerak sustatzen dituzten fiskalitatearen aldaketak.

*Adibideak: Zerga deskontuak egitea eguzki-kolektoreen instalaziorako obrak egiteko baimena ematean.*

- **Ekipamenduak eta azpiegiturak**

Ekipamenduak erosteko edo azpiegiturak bideratzeko ekintzak.

*Adibideak: Ur-araztegiak eraikitzea, plaka fotoboltaikoak instalatzea, bizikletentzako bideak eraikitzea.*

- **Jasangarritasun-irizpideen integrazioa**

Udal kudeaketarekin edo tokiko administrazioaren funtzionamendurekin lotutako arlo desberdinetan jasangarritasun-irizpideak kontutan hartzearekin zerikusia duten ekintzak.

*Adibidez: Hiri-plangintzan eta udalak produktuak erostean ingurumen-irizpideak integratzea, tokiko administrazioaren funtzionamenduan jardunbide egokiak integratzea.*

- **Ikerketak**

Jasangarritasunaren esparruan arlo, prozesu edo arazo nagusiak hobeto ezagutzeko edo baloratzeko, edota Ekintza-Planak zehaztu ezin dituen ekintzak definitzeko aukera ematen duten azterketak egitea.

*Adibidez: Bideen Inbentarioa egitea, konpost-instalazio baten bideragarritasun-azterketa egitea.*



## EKINTZEN KARAKTERIZAZIOAN ERABILITAKO KONTZEPTUEN DESKRIBAPENA

<b>KONTZEPTUA</b>	<b>DESKRIBAPENA</b>
<b>Kodea</b>	Hiru digituko zenbakia, ildo, programa eta ekintzari dagozkienak.
<b>Ekintza</b>	Ekintzaren izenburua.
<b>Ildoa</b>	Ekintzari dagokion ildo estrategikoaren zenbakia eta izena. Ekintzaren helburu orokorra jasotzen du.
<b>Programa</b>	Ekintzari dagokion programaren zenbakia eta izena. Ekintzaren helburu zehatza jasotzen du.
<b>Deskribapena</b>	Ekintzaren definizio eta oinarritzko definizioa.
<b>Burutze/ Ezarpen epea</b>	Ekintza burutzeko (ekintza puntual baten kasuan) edo ezartzeko (denboran zehar modu jarraian edo aldizkakoan mantendu behar den ekintza baten kasuan) gehienezko epea.
<b>Laburra (0-1 urte)</b>	Burutze/Ezarpen epea laburra dela adierazten du (0 urtetik urte 1-era).
<b>Ertaina (1-3 urte)</b>	Burutze/Ezarpen epea ertaina dela adierazten du (urte 1-etik 3 urtetara).
<b>Luzea (3-5 urte)</b>	Burutze/Ezarpen epea luzea dela adierazten du (3 urtetatik 5 urtetara).
<b>Aldizkakotasuna</b>	Ekintza burutzeko proposatutako maiztasuna. Iraunkorki burutu behar diren ekintzen kasuan "jarraia" hitzaz adierazten da.
<b>Lehentasuna</b>	Ekintzaren lehentasun-maila adierazten du garrantzi mailaren arabera, bai alderdi gako batean eragina izateagatik, burutzea premiazkoa izateagatik edota hainbat eragin baikor izango dituelako.
<b>Estimatutako kostua (€)</b>	Ekintza burutu edota ezartzeko estimaturiko kostua. Langileen kostuak barneratzen diren ala ez adierazten da, edo hau baloratzeko ikerketa zehatz bat beharrezkoa den ala ez.

<b>KONTZEPTUA</b>	<b>DESKRIBAPENA</b>
<b>Entitateak</b>	Ekintza gauzatzean edo ezartzean parte hartzen duten entitateak.
<b>Finantziarioa</b>	Ekintzaren finantzioazio ekonomikoan parte hartzen duten edo har dezaketen entitateak.
<b>Adierazleak</b>	Tokiko Jasangarritasun Adierazleen Sistemako adierazlea edo adierazleak, ekintzarekin zuzenean edo zeharka lotuta daudenak.
<b>Burutze-kontrola</b>	Ekintzaren garapen- edo ezartze-maila adierazten du.
<b>Hasi gabe</b>	Ekintzarekin erlazionatutako jarduerak ez dira burutu.
<b>Hasita</b>	Ekintzaren lehen faseak hasi dira egiten (proiektu fasea, korapilatuta dauden besteekin elkarrizketen hasiera ...)
<b>Aurreratua</b>	Ekintzarekin erlazionatutako jarduerak burutzen ari dira eta hasiera-faseak gainditu dira
<b>Bukatzen</b>	Kategoria hau bi kasuetan erabiltzen da: jarraipena egiten den urtean bukatzen diren inbertsioak direnean, edota lehenik hasita zegoen aldizkako edo burutze jarraiko ekintza baten kasuan.
<b>Bukatuta</b>	Jarraipena egitean, aurreko urtean bukatutako inbertsioen kasuan edota konpondu nahi diren arazoak desagertu direnean erabiltzen da.

### 3.2.3 Karakterizazio ekonomikoa eta ekintzen burutzearen erantzukizuna

Jasangarritasun Ekintza-Planak Udalak osorik edo partzialki finantziatutako ekintzak kontutan hartzen ditu. Udalez gaindiko administrazioei soilik dagozkien ekintzen kasuan, bakarrik hartuko dira kontutan udalak egindako ekintza burutzeko eskaerari lotutako kostuak.

Planteatutako ekintzen mota eta gai heterogeneitatea dela eta, kostuen esleipena ere desberdina da, honako kasu zehatzak planteatuz:

- **Udal giza-baliabideen kostua soilik duten ekintzak:**

